



EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 16koa, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen arteko prestakuntza-ibilbideak argitaratzen dituena.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1996. urtean ezarri ondoren, urtarrilaren 30eko 26/1996 Dekretuak unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoak berrantolatu zituen Euskal Autonomia Erkidegoan. Dekretu hori ezarritako garaian jaiotza-indizeak behera egin zuen, eta migrazio-fluxuaren saldoa negatiboa zen. Egoera horrek ikasle-kopurua murriztu egin zuen.

Ordutik hona aldaketa nabarmenak gertatu dira; besteak beste, jaiotza-tasa gora egiten ari da azken urteotan; hezkuntza-eskaintza Haur Hezkuntzako lehen ziklora hedatu da; eta hizkuntza-ereduak eboluzionatu egin dira. Eta horrek guztiak aldaketak eragin ditu ikastetxeetan.

Errealitate berri honen aurrean beharrezkoa da 1996ko Dekretuak ezarritako esparrua eguneratzea. Gaurkotze lanak 2007an hasi ziren, ekaineko 26ko 106/2007 Dekretua argitaratu ondoren. Dekretu horren bidez Eskola-barrutiak zehaztu ziren.

Geroago, 21/2009 Dekretua, otsailaren 3koa, argitaratu zen; dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezarri ziren.

Dekretu horren arabera, eskola-mapa tresna bat da, kalitatezko hezkuntza batek behar duen plazen eskaintza planifikatzeko. Dekretuak ezinbesteko printzipio hauek ezartzen ditu: ekitatea, ikasleak batera biltzea, hezkuntza-eragileek parte hartzea, erakunde publikoen arteko elkarlana eta erantzukizunak partekatzea, baliabideak arrazionalizatzea eta hobeto erabiltzea, eta malgutasuna, hezkuntza-eskaintza gaur egungo gizarte-egoetara eta egoera demografikoetara egokitzeko orduan.

Azkenean, 1/2018 Dekretuak, urtarrilaren 9koa, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duena, hezkuntza-arloko eskumena duen sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan nahiz itunpeko ikastetxe pribatuetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Oinarrizko, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasketetan), baita oinarrizko lanbide heziketa ematen duten udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan ere onartzen duenak, bere 7.artikuluaren 1. eta 2. puntuetan ezartzen du ikasleen onarpena gauzatzeko Hezkuntzako lurralde-ordetzakariak lurralde historiko bakoitzean ikastetxeen atxikipenak ezarriko dituztela.



Horrenbestez, eta esandakoaren arabera:

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Hezkuntza Sailaren menpeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen arteko prestakuntza-ibilbideak argitaraztea. Informazio hori ebazpen honen I. eranskinean agertzen da.

Bigarrena.- Unibertsitateaz kanpoko itundutako ikastetxeen arteko prestakuntza-ibilbideak argitaraztea. Informazio hori ebazpen honen II. eranskinean agertzen da.

Hirugarrena.- Ibilbide horiek indarrean egongo dira ebazpen hau argitaratzen den egunetik aurrera, eta 2020-2021 ikasturte osoan; hurrengo ikasturteetan ere indarra izango dute, baldin eta ibilbideon edukia aldatzen ez bada.

Laugarrena.- Etorkizunean aldaketarik egiteko, beste ebazpen batzuk eman eta argitaratu beharko dira; halakoetan, dena den, dagokion ikasturtean ikasleak onartzeko epea hasi baino lehenago argitaratu beharko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 16an.

Eugenio Jimenez Ibañez
IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA